

## TEORIA FEMINISTAK GIZARTE ZIENTZIEN ARLOARI EGINIKO EKARPENAK

(Denbora: 45 minutu)

Mendebaldeko gizarteetan emakumeen aldeko mugimenduak sortu zirenean, batez ere emakumeen sufragioa lortzeko borrokarekin lotzen ziren. Mugimendu haiek doktrina liberalen esparruan sortu ziren, hiritar guztiei, sexu bereizkeriarik gabe, eskubide politiko berberak ematea aldarrikatzen zutenen artean, alegia.

XX. mendearen hasierako hamarraldietan izan zen gorakada feministaren ondoren, emakumeak askatzeko mugimenduak gainbehera egin zuen, berrogeigarren hamarralditik hirurogeigarrenera bitarteko urteetan. II. Mundu Gerraren ostean, ideologia kontserbadorea zuen gizartea azaldu eta nagusitu egin zen; horrek emakumeen ikuspegi tradizionala berretsi zuen: emakumeak emazte, ama eta etxeakoandre gisa ikustea, alegia.

60. hamarralditik aurrera, kultura ez-konformistaren loraldiarekin eta gizarte jarrera permisiboagoekin batera, mugimendu feministak berriro ekin zion bere jarduerari eta hainbat frontetan aritu zen, gogoeta politikotik sexu askapenera.

Gaur egungo feminismoa proiektu pluralista eta anitza da; bizi- eta ideologia-jarrera desberdinek osatzen dute, eta horiek feminismoaren hainbat korrante gauzatzen dituzte: erreformista, erradikala, iraultzailea, sozialista, marxista, berdintasunaren aldekoa, desberdintasunaren aldekoa, ekofeminismoa...

Hasiera batean, mugimendu antolatuek zituzten kezka nagusiak ziren gizarte jardueran ematen zen emakumeen bazterkeriaren aurka borrokatzea eta haien mendekotasunari eutsi dioten mekanismoak identifikatzea. Feminismoa, ordea, zientziari eginiko ekarpen handia ere bada. Feminismoak arlo horretan duen helburua da erronka egitea gizarte zientzietako teorien izaerari eta eraikuntzari.

Azken hamarraldietan, **genero** kontzeptua indarka sartu da gizarte zientzien arloan. Egun termino horrek zehatz ukitzen dio emakumetasunaren eta gizonezkotasunaren eraikuntza soziokulturalari.

Generoa gizarte orok sexu anatomikoari buruz egiten duen kultura eraikuntza da; hein batean bada ere, horrek, kasuan kasuko garaiak eta kulturak kontuan izanda, pertsonaren zoria, haren rol nagusiak, haren statusa eta izango duen sexudun nortasuna zehaztuko ditu.

Genero terminoa soilik erabil daiteke deskribapenak emateko, hau da, kultura batean sexudun formak daudela egiaztatzeko. Hala ere, kritika feminista bultzatzen duten etikak eta filosofia politikoak hainbat itxura har ditzakete, botere harremanen analisia derrigorrez barne hartu behar badute ere.

Genero terminoak sexuen harreman dialektikoari ere ukitzen dio eta, beraz, ez dagokio bakarrik emakumeen eta arlo femeninoaren ikerketari, baizik eta gizonezkoak eta emakumezkoak beren harreman sexualetan ikertzeari ere.

Hirurogeigarren hamarralditik aurrera feminismoak abian jarri zuen gizarte aldaketaren ondorioz, gizarte zientziak beren oinarri eta teoria asko eta asko berrikusten hasi dira.

Feminismo erradikalak **patriarkatu** kontzeptua erabiltzen du emakumeen mendekotasuna azaltzen duen egitura gisa. Hori egiteko abiapuntua da boterea gizonek berekin daramaten irudi maskulinoan biltzen dela.

Emakume teorialari batzuek nahiago izaten dute **sexu-genero sistema** terminoa erabili. Teresita de Barbierik honela definitzen ditu genero sistemak: "jarduera, sinbolo, adierazpen, arau eta balio sozialen multzoa, gizarteek sexu desberdintasun anatomiko-fisiologikoan oinarrituta eratzen dutena, eta sexu bulkadak, giza espeziearen ugalketa eta, oro har, pertsonen arteko harremanak asetzen dituen".

Feminismo sozialistak patriarkatu kontzeptua erabiltzea kritikatzeko, termino hori orokorra dela argudiatzen du, eta ez dituela emakumeen egoera zehatz eta desberdinak azaltzen.

Celia Amorós-en hitzei jarraiki, patriarkatua (edo sexu-genero sistema) sistema metaegonkortzat jotzen badugu, ulertuko dugu zenbait testuingururi egokitzen zaion gizarte sistema dela: testuinguru historikoei, sozialei, politikoei eta ekonomikoei. Beraz, sistema hori bidezkoztat jotzeko arrazoibideak gizarte bakoitzean nagusi den kultur itxura hartuko du.

Alicia H. Puleok dioen legez, mugimendu feministak bultzagarri handiak izan dira hainbat arlotan, eta gizarte zientziei ekarpen handia egin diete. "Feminismoa, emakumeek eremu publikoan leku bat izatea aldarrikatzen hasi bazen ere (hiritartasunaren aldarrikapena Frantziako Iraultzan, bozkatzeko eskubidea XIX. mendean), azkenean publikoa eta pribatua denaren ohiko kontzeptuak zalantzan jartzen bukatu du. Horrez gain, eremu publikora ekarri ditu eremu pribatukotzat soilik jotzen ziren gai batzuk (familia plangintza, abortua, etxeko indarkeria eta abar); horrela, politikaren esparrua zabaldu du". Feminismoak, teoria eta mugimendu gisa, aldaketak eragin ditu gizartean, eta horiek filosofia eta zientzia gogoetabideari eragin diote.

Pentsaera ilustratuak eta feminismoak bereizi ezinezko lotura dute. Tradizio feminista ilustratuak, gizaki ororen berdintasunaren izenean, aldarrikatzen du emakumeek eskubidea dutela galarazi dizkieten postuak eta zereginak jasotzeko. Hala ere, tradizio feminista hori ez da ilustratu gehien ikuspegiaren adierazgarri, ezta hurrik eman ere. Esan dezakegu generoa, sexuen gizarte eraikuntza adierazteko kontzeptu gisa, ilustrazioak hezkuntzari eman zion garrantziaren baitan sortu zela.

**Androzentrismoa** sexu-genero sistemaren ondorio bat da; horren bidez, gizona eta gizonezkotasuna bikaintzat jotzen dira, eta emakumea eta emakumetasuna desbideratzea edo gabezia gisa ikusten. Jatorrian, androzentrismoari eginiko kritika feminismo erradikalaren ekarpena izan zen.

**Ekofeminismoa** pentsamolde etiko-politiko berria da, milurtekoaren bukaeran etorkizun gehien duten gizarte mugimenduen ideiak uztartzetik sortua. Ekofeminismoaren adierazpen guztiek amankomunean dutena da denek baieztatzen dutela emakumeen nagusitasunaren eta natura ez gizatiarraren nagusitasunaren artean loturak daudela.

Ekofeminismoaren gogoetak feminismo erradikalaren eta sozialistaren zenbait joeretatik datoz. Feminismo liberalak gai berri horiei dagokienez axolagabe edo kontrakoa dela adierazi du, eta horretarako hainbat arrazoi eman du. Arrazoi horien artean, berebiziko garrantzia du feminismoaren joera horrek gizartean nagusi den eredu kapitalista-kontsumistarekin bat egin duela, haren aurkako inolako jarrera kritikorik agertu gabe.

Horiek guztiak mugimendu feministak gizarte pentsamenduari eginiko ekarpen nagusietako batzuk dira. Hala bada, baiezta dezakegu generoaren gizarte eraikuntza feminismoaren kultura-paradigmaren zati dela. Haren oinarrian dagoen etikak eskatzen du intolerantzia buka dadila eta, gizarte anitz eta demokratiko batean izanik, gizakion berdintasun printzipioa onartua izan dadila.

### **Generoaren gizarte eraketa**

Generoa gizarte orok sexu anatomikoari buruz egiten duen kultura eraikuntza da; hein batean bada ere, horrek, kasuan kasuko garaiak eta kulturak kontuan izanda, pertsonaren zoria, haren rol nagusiak, haren statusa eta izango duen sexudun nortasuna zehaztuko ditu.

Genero mailari hurbiltzeak esan nahi du hura eratzeko duten osagaiak kokatzea eta honako hauek identifikatzea:

- Erlaziozko kategoria bat da. Maila horrek gizonen eta emakumeen arteko harremanen berri ematen du. Beraz, ez dugu onartzen generoaren ideia emakumei lotzea, eta proposatzen duguna da generoaz ari garenean ezaugarri historiko batez ari garela, ez bakarrik emakumeek eratutakoa baizik eta gizonen ere sortutakoa dena.

Emakumetasuna eta gizonezkotasuna elkarrekin harremanean eratzeko joan diren ezaugarriak dira. Emakumezkotasunari samurtasuna, negarra, seme-alabak haztea, sentiberatasuna eta izaera magikoa atxiki zaizkio; gizonezkotasunari, aldiz, horien kontrakoak atxiki zaizkio: indarra, buruargitasuna, publiko dena eta arrazoizkoa.

- Gizarte eta kultura eraikuntza bat da. Gizonen eta emakumeen jasotzen dituzten gizarte eta kultura zehaztapenen berri ematen digu. Generoa gizarte mailan eratutako sexuari dagokio. Gizonezko eta emakumezko denaren arteko gizarte desberdintasuna finkatzen du, eta horren arrazoitzat sexu desberdintasuna jartzen du. Adierazpen, praktika eta sinbolo sistema bat da, kulturak sexu desberdintasunaren arabera egokitzen duena eta gizonen eta emakumeen esanahi desberdina ematen diona gizartean.
- Zerikusia du boterearekin. Genero harremanek agerian jartzen dituzte botere harremanak. Botere harreman horien barnean, generoaren arabera nagusitasun eta mendekotasun prozesuak daude.
- Zerikusia du hizkuntzarekin. Hizkuntzak agerian jartzen ditu kultura batek generoari buruz dauzkan eredu edo ikusmoldeak. Kultura patriarkalak generoaren arabera bazterkeria hizkuntzaren bidez ere adierazten du: emakumetasunaren kodeak isilean gordetzen ditu.
- Zerikusia du beste maila batzuekin. Gizonen eta emakumeen ez dituzte harremanak izaten soilik genero sistema sinboliko baten barnean; aldi berean, gizarte maila, etnia, jatorri, sexu lehentasun eta adin sistemen arabera harremanak izaten dituzte. Zenbait eragileren elkarrekintzak eratutako gizaki anitza osatzen dute.
- Historikoa da. Genero eraikuntza aldatuz doa historian zehar kultura jakin baten barruan. Genero nortasuna ez da estatikoa, eragiten dioten faktoreen arabera aldatzen da: faktore politikoak, kulturazkoak, ingurumenari loturikoak,

hezkuntzazkoak, komunikazioarekin zerikusia dutenak, lege faktoreak eta abar. Generoa behin eta berriz definitzen da bizitzaren zikloan zehar.

Generoaren osagaiak eta horiek gizarte antolaketan eta pertsonen sozializazioan duten eragina:

- **Rola.** Honako hauek dira genero rol gisa kontzeptualizatu direnak: emakume eta gizonei bereizita atxikitzen zaizkien funtzio, erantzukizun, betebeharrak eta eskubideen multzoa. Rola edo zeregina funtsezko osagaitzat jo izan da, oinarritzko eragilea delako, sistemaren osagaien multzoa bere horretan gordetzeko edo aldatzeko. Gizonek zenbait rol har ditzakete: familiaburu, beharrezkoen hornitzaile, aita, komunitateko buru edo erlijio agintari, besteak beste. Emakumeek beste hauek hartzen dituzte: etxekoandre, emazte, ama eta jagole. Jakina denez, gizonezkoen rolek emakumezkoenak baino botere gehiago izaten dute.

Rolek berebiziko garrantzia izaten dute lanean sexuaren arabera bereizketa egiteko. Ideia horrek adierazten duena da ezagutzen dugun gizarte orok zereginak sexuen arabera banatzen dituela. Horrek ez du esan nahi beti banaketa bera egiten denik. Antropologiak erakutsi duen legez, sexu bakoitzari egokitzen zaizkien zereginak aldatu egiten dira gizartetik gizartera. Sexuaren arabera lan banaketa, aldiz, denetan agertzen da. Joera nagusia da zeregin batzuk emakumeenak izatea, eta horiek zerikusia izaten dute, batez ere, seme-alaben hazierarekin, etxea zaintzearekin eta ugaltzearekin (azken horrek ugalketa eta pertsona helduak fisikoki eta psikologikoki zaintzea hartzen ditu barne).

Lana generoaren arabera banatzean, emakumeen zereginei gizonenei baino balio gutxiago ematen zaie, lan horiengatik gutxiago ordaintzen dute eta ezkutukoagoak izaten dira. Eremuen (publikoaren, pribatuaren eta etxekoaren) banaketa liberala eta emakumeak eremu publikotik kanpo uztea legezkotzat jotzea patriarkatu modernoaren oinarrian dagoen arrazoibidearen zati dira.

- **Sexudun nortasuna.** Gizabanakoaren psikologia eraikuntzari dagokio. Jakintza adarrak bat datoz sexudun gizabanako femeninoaren eta maskulinoaren ezaugarriak zeharo desberdinak direla adierazteko orduan. Arazoa da desberdintasun horien arrazoa zehaztea. Generoak, agente sozializatzaile den heinean, pertsonen nortasuna eratzen du.

Hirugoei eta hirurogeita hamargarren urteetako feminista erradikalek behin eta berriz aipatu zuten sexu estatusaren edo mailaren gaia: haiek gizarte maila eta sexu maila bereiztu zituzten. Gainontzeko gizarte mailen kontra egin dezakeen sexu maila dagoela aitortzea, feminismoaren ekarpenetako bat izan da. Agerikoa da, beraz, ikerketa feministek kategoria zehatzak azalduz lagundu diotela ezagutza soziologikoari.

Teoria feministak ez du bakarrik generoaren maila kontuan hartu, hau da, ez ditu emakumeak osotasun gisa soilik aztertu; horrez gain, aldagai asko uztartzen ditu emakumeen arteko desberdintasunak azaltzeko. Rolek, statusak eta sexudun nortasunak esperientzia desberdinak ekartzen dizkiete gizonei eta emakumeei.

- **Statusa.** Gizabanakoaren gizarte maila da, sexuaren arabera zehazten dena. Emakumeek gizonek baino maila apalagoa dute.
- **Arauek.** Rolek, statusak eta nortasunak sortu eta sendotzen dituzte, eta gizartean batzutan zurrungo eta beste batzutan malguago funtzionatzen dute. Oro har, ez

dira idatzirik jasotako arauak izaten, eta zuzen eta oker dagoena zehazten dute, genero bakoitzak zilegi edo debekatuta duena.

- **Estereotipoak.** Ideia simple batzuen multzoa da, gizakien barrenean sendo finkatuta daude eta ez dira arrazoiaren mendeko izaten. Goi mailako kulturaren adierazpenetan eta publizitatean agertzen dira. Adibidez: gerlaria, ama, emagaldua, jenioa...
- **Zigorrak.** Generoaren mugak urratzen dituenari ezartzen zaizkion zehapenak dira. Era askotakoak dira eta horien zorrotasuna aldatu egiten da garaiaren, gizarte taldearen eta arau haustearen arabera. Erdeinuzko irribarre ironikotik hasi eta transexualak hiltzeraino, edo, zenbait herrialde islamiarretan gertatzen den legez, esan txarreko emaztearen aurkako indarkeria onartzea izan daitezke.

Alicia H. Puleoren ustez, arauen, estereotipoen eta zigorren bidez, patriarkatu mota bi bereizi daitezke: hertsatzen duten patriarkatu sistemak, eta onartu egiten duten patriarkatu sistemak. "Lehenengo motakoak oldarkorrakoak izaten dira ohiturazko arauak, erlijiozkoak edo juridikoak hausten dituztenekin; bigarren motakoek, ordea, konturatu barik bultzatzen dituzte emakumeak, hainbat eratan limurtzen dituzte, emakumeek berek nahi izan dezaten publizitatearen, zinearen eta abarren bidez, proposatzen dizkieten emakume ereduak izan".

Informazio iturriak:

- Argibay, M *et al.* (1997): *Vidas paralelas de las mujeres. Guía didáctica de Educación para el Desarrollo*. Bilbo: Hegoa.
- Amorós, C. (zuzendari) (1995): *10 palabras clave sobre Mujer*. Nafarroa: **evd**.
- H. Puleo, A. (2000): *Filosofía, género y pensamiento crítico*. Valladolid: Valladolideko Unibertsitatea.